

## ETORKIZUNA PENTSATUZ

2000. urtea *gara* jadanik. Eta *gara* esaten dugu, zeren, kalkulu kronologiko hutsa gaingiduz, gure urte honek, inolako zalantzarik gabe, esanahi sinboliko sakona baitu, etorkizunari buruzko irudi oroitarazlez betea. Baina *gara* esaten dugu, baita ere, sinboloak, azken finean, gizakiaren produktu direla dioen ideiatik. Horrela, zuzena izan daiteke esatea ideiazio horiek gizakiak eraikitakoak baldin badira, haien materializazioa ere hala izan daitekeela.

Urte mitiko honen iritsierak berarekin zekartzan oroitzapen askok, sarritan, gizarte bukoliko-teknologiko, harmoniatsua, aisialdikoa, materialen aldetik ugarria, zientzia-fikziozkoa eta zerukoia aipatzen zuten; eta beste batzuetan, bai moralaren eta baita egituraren aldetik guztiz kanpo zeuden hirietako gizarte lunpen-proletarizatuak marrazten zituzten nihilismo ciberpunketatik irudikaturiko gizartea zen, hekatanbe atomiko-ekologikoren baten gehigarriarekin, gainera; *continuum* baten bi polo posible aipatzearen bakarrik.

Baina badirudi 2000. urtea, itxaroten zenaren eta gero errealitatean izan denaren arteko ikuspegi bikoitzetik, gure gizartearen produktua baino ez dela. Horregatik *gara* urte hau eta baita beste edozein urte ere.

Lanaren ideia lehen marrazturiko gizarteko eskenatoki guztietan agertzen zenez, puntu honetan lanaren etorkizunaren gaia proposatzeko adina parapeto aurkitzen dugu; kasu honetan, zientziak, aurreko ikuspegiak rezidibatu baino zertxobait gehiago egiteko proposatzen dizkigun formak gehiago erabiliz.

Beraz, 2000. urtea, etorkizunaren begiratokia eraikitzeko aitzakia bilakatzen zaigu, aitzakia sinbolikoa oraingoan ere, denboran proiektaturiko lanaren izate sozialari buruzko gogoeta egiteko puntua, bere aberastasun eta konplexutasun guztiarekin. Ideia hau da LAN-HARREMANAKen bigarren zenbaki honen gaia oinarritzen duena: lanaren etorkizuna pentsatu.

Ideia honekin bat etorritik, joan den 1999ko Urrian, Azaroan eta Abenduan, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskolan, *Lana XXI. mendean* izenburu orokorra izan duen hitzaldi zikloa burutu da. Hitzaldi ziklo hori ez zen izan unibertsitateko ikastegi horretan izaten ohi direnetako beste bat, ikastegi hau Euskal Herriko Unibertsitatean sartu zenetik

hamargarren urteurrena ospatzeko antolatatu ziren ekintzen arteko nagusia izateko asmoa zuen. Bilatzen zena, eta gure ustez lortu dena, XXI. mendean lanaren ezaugarri izango direnetako batzuk ikuspegi desberdinetatik lantzea zen.

Komenigarria zen ezagutzaren esparru desberdinetako hizlariak egindako gogoetak, gainerako komunitate akademikora, gizarteko agenteengana eta lan munduan interesa duten gainerako erakunde eta pertsona guztiengana heltzea. Pentsamendu horrekin, LAN-HARREMANAKeko zenbaki hau, ohi ez den bezala, aipaturiko jardunaldietan parte hartu zuten hizlarien ekarpenez osaturik dago. Gure ustez oso garrantzitsua da azpimarratzea ondoren aurkeztzen diren testuak, hizlariak beraiek egindako hitzaldien transkripzioak direla, eta, ondorioz, jatorrizko alokuzio tonua gordetzen dutela.

Badago arau hori puskatzen duen artikulua bat, haren jatorria ez baitago aipaturiko jardunaldietan. Hala ere, erabateko sintonia erakusten du bigarren zenbaki honetako gai monografikoarekin.

*El Derecho Social en el umbral del siglo XXI: La nueva fase del derecho del trabajo* izeneko Monereo irakaslearen ekarpena, *lanaren gizarte estatutua* desegituratzeko prozesuei eta prozesu horren alternatiba diren neurriei buruzko gogoeta osoa eta landua da.

Hitzaldietako ekarpenei dagokienez, hurrengo aditu hauek hartu dute parte: José Ramón Bengoetxea jaunak, Eusko Jaurlaritzako Lan Kontseilariordeak, jardunaldiei hasiera eman eta duela denbora gutxi onarturiko Enpleguari Buruzko Euskal Planaren linea orokorrak aurkeztu zituen; Andoni Kaierok, Deustuko Unibertsitateko Lanaren Soziologiako Katedradunak, XXI. mendeko sindikalismoak aurrean izango dituen erronkei buruz hitz egin zuen; Agustín González Crespok, Asociación Española de Personal (AEDIPE) izenekoaren Zuzendariak, enpresetan gertatzen ari den antolakuntza paradigma berriaren ezaugarriak buruzko hitzaldia eman zuen; Juan Torres Lópezek, Malagako Unibertsitateko Ekonomia Politiko eta Ogasun Publikoko Katedradunak, ideia neoliberalak nagusi diren marko ekonomiko batean enplegu politikak hartzeak dituen zailtasunei buruz mintzatu zen; Juan Pablo Landa Zapirainek, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzenbideko Katedradunak, hiritartasun sozialaren ideiak, teknologia berrietara eta lana antolatzeko modu berrietara hobeto egokituriko Lanaren Zuzenbidearen egituratzaile gisa duen garrantziaz hitz egin zuen; Pilar Pérez Fuentesek, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, gaur egun nagusi den genero gailenaren eredu asimetrikoaren zergati historikoak bilatu zituen.

*Lana XXI. mendean* jardunaldiei amaiera bikaina emateko mahainguru bat burutu zen, eta bertan partaide izan ziren Jon Bilbao, CONFEBASKeko Lan Harremanetarako Saileko Zuzendaria eta Felipe Serrano, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua V.eko saileko irakasle titularra. Mahainguru-

ren gaia *Lan Harremanak XXI. mendean* izan zen; kasu honetan, hitzaldiak eta baita ondoren bertaratu zen jendeak esandakoak grabatu eta transkribatu egin ziren, baina ondoren ez dira gehiago landu.

Horrez gain, aurkezpen honetaz baliatuz, LAN-HARREMANAKeko irakurleei gure hirugarren zenbakiaren gaia zein izango den aurreratu nahi diegu: *Enpresa, aldatzen ari den ingurunearen erronken aurrean: postfordismoa, malgutasuna eta ekoizpenaren deszentralizazioa*, eta, entzute handiko laguntzaileek idatzitako artikuluek osatuko dute, beti ere diziplina anitzeko ikuspegitik. 4. Zenbakitik aurrera, LAN-HARREMANAKek, gaietarako eta artikuluetarako proposamenak onartuko ditu. Horrela, Lan Harremanen ezagutzari, edozein ikuspegitik, nolabaiteko ekarpena egin nahi dioten pertsona guztiei, zenbaki honen amaieran azaltzen diren idatzizko materialak onartzeko oinarriak eta gaien proposamena irakur ditzaten gomendioa luzatzen diegu.

Azkenik, eta oraingoan ere, beraien laguntza ekonomiko desinteresatuarekin bigarren zenbaki hau kalean egon dadin lagundu duten erakunde guztiei gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu: Lan-Ekintza, Inguralde, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza.

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA

LAN-HARREMANAKeko zuzendaria